ZOZKETAREN OINARRIAK ETA DATUEN BABESA

«Zuk eskatu, nik ulertzen dut» zozketaren oinarriak

1. **Antolatzailea.** Arrasate, Bergara, Antzuola, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati eta Elgetako udalek antolatu dute zozketa hau, «Zuk eskatu, nik ulertzen dut» kanpainaren barruan, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Zozketaren kudeaketa Debagoieneko Mankomunitateak egingo du.
2. **Helburua.** Debagoieneko tabernetan euskararen erabilera sustatzea eta bultzatzea.
3. **Epea.** Parte hartzeko epea 2026ko azaroaren 18tik abenduaren 15era bitartekoa izango da (biak barne).
4. **Nork har dezake parte.** 18 urtetik gorako pertsona orok. Ezin izango dute parte hartu kanpainaren antolakuntzan ari diren langileek, enpresek eta parte hartzen duten tabernetako langileek.
5. **Nola parte hartu.**
    - Kanpainari atxikitako tabernetan euskaraz eskatu eta kontsumitu, zozketa-txartela bete eta horretarako prestatutako kutxan sartu.
    - Pertsona bakoitzak txartel bat baino gehiago bete ahal izango du. Euskaraz eskatu eta kontsumitzen duen bakoitzeko txartel bana jasoko du.
    - Nahitaezkoa da izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa ematea. Datu okerrak, osatu gabeak edo irakurtezinak dituzten txartelak baliogabetu egingo dira.
6. **Sariak.**
    - 400 euroko asteburu-pasa edo esperientzia bat, Debagoienean. Irabazleak berak aukeratuko du, eta 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen erabili beharko du.
    - 30 euroko 10 kontsumo-bonu, kanpainari atxikitako tabernetan 2027ko urtarrilaren 31ra arte erabiltzeko.
    - Sariak pertsonalak eta besterenezinak dira; ezin izango dira diruagatik trukatu, eta bonuek ez dute kanbiorik edo diru-itzulketarik emango. Pertsona bakoitzak sari bakarra irabazi ahal izango du.
7. **Zozketa.** 2026ko abenduaren 18an egingo da, Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan, paperean jasotako baliozko parte-hartze guztien artean. Ausaz aukeratuko dira 11 irabazleak eta sari bakoitzeko *3* ordezko.
8. **Jakinarazpena eta sari-banaketa.** Irabazleen zerrenda (izena eta lehen abizena) Debagoieneko Mankomunitatearen webgunean argitaratuko da. Horrez gain, Mankomunitatea zuzenean jarriko da harremanetan sarituekin, telefonoz edo e-postaz. *10* egun naturaleko epean saria onartzen ez bada edo sarituarekin harremanetan jartzea ezinezkoa bada, saria hurrengo ordezkoari emango zaio.
9. **Zerga-araubidea.** Sariei indarrean dagoen zerga-araudia aplikatuko zaie.
10. **Oinarriak onartzea.** Zozketa honetan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar. Mankomunitateak ahalmena izango du oinarrietan aurreikusi gabeko edozein zalantza ebazteko eta iruzurrezko parte-hartzeak baliorik gabe uzteko.

Datuen babesari buruzko oharra

- **Tratamenduaren arduraduna:** Debagoieneko Mankomunitatea, Nafarroa etorbidea 17, 20500 ARRASATE.
- **Datuak babesteko ordezkaria (DBO):** dbo@debagoiena.eus.
- **Tratamenduaren helburua:** Zozketako parte-hartzea kudeatzea, irabazleekin harremanetan jartzea eta sarituen izen-abizenak webgunean argitaratzea.

- **Legitimazioa:** Interesdunaren baimena, zozketan parte hartzean emana.
- **Kontserbazio-epea:** Zozketa amaitu eta sariak banatu arte gordeko dira, eta, ondoren, legeak ezarritako epeetan.
- **Hartzaileak:** Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, lege-betebeharrik ezean. Datuen tratamendu-eragileak izango dira: kanpaina kudeatzen duen agentzia edo txartelak biltzen dituzten tabernak.
- **Eskubideak:** Zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubidea duzu, baita emandako baimena edozein unetan kentzekoa ere. Horretarako, idatzi Debagoieneko Mankomunitateari (Nafarroa etorbidea 17, 20500 Arrasate) edo dbo@debagoiena.eus helbidera. Halaber, erreklamazioa aurkez dezakezu Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (www.avpd.eus).